

HIRU URTETAN UNIBERTSITATEARI BURUZKO LAU LIBURU

EUSKAL HERRIAN

Nik dakidalarik, 2002tik 2004ra unibertsitateari buruzko lau liburu idatzi dira Euskal Herrian:

- Lehen liburua askoren artean idatzita dago, eta UEU-EI-RE-k argitaratu zuen 2002. urtean. Bere izenburua da *Euskal Unibertsitatea-2021. Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*.

- 2003an, Mikel Aizpurua-k argitaratu zuen *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak (1973-1984)* liburua.

- Urte berean, hau da, 2003an, Pello Salaburu-k eta Juan Ignacio Perez Iglesias-ek *Unibertsitatea eta euskal gizartea, gaur* argitaratu zuten.

- Azkenik, 2004ean, ANECA-k eskatuta, EHU-ko Politika eta Administrazio Zientzien Sailean, *Los Españoles y la Universidad* liburua idatzi zen. Liburu hau sail horretan egindako ikerketa batean oinarrituta dago, eta Francisco J. Llera-k eta Alfredo Retortillo-k koordinatu zuten.

Laurak ere liburu interesgarriak dira Euskal Herriko unibertsitateen egoera eta bilakaerarekin arduratuta daudenentzat.

Datu, ondorio eta ikuspuntu ugari ematen dituzte gure unibertsitateen iragana, oraina eta geroa ulertzeko. Zentzu honetan, unibertsitateari buruz hausnartzera bultzatzen gaituzten lanak dira. Eta, nire ustez, gauzak hobeagotzeko ez dago eurei buruz hausnartzen hastera baino gauza hobeagorik.

Liburu mota desberdinak badira ere, era honetako galderen erantzuna aurkitzen du irakurleak liburuotan: zein da Euskal Herriko unibertsitateen egoera? Nolako bilakaera izan dute? Norantz doaz? Zer-nolako tokia izan behar du euskarak unibertsitatean? Zenbat inbertitu behar dute erakundeek unibertsitatean? Nola ikusten dute herritarrek unibertsitatea? Zer hobeagotu behar du unibertsitateak? Zeintzuk dira gure unibertsitateen alde sendo eta ahulak?

Arestian esan bezala, 2002an, UEU-k eta EIRE-k *Euskal Unibertsitatea-2021. Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea* liburua argitaratu zuten. Gai asko jorratzen dituzte bertan. Besteak beste, Euskal Unibertsitatea zer izan beharko litzatekeen, euskarak euskal unibertsitatean izan behar lukeen tokia, euskal unibertsitate bat bultzatzeko eman beharreko pausoak, e.a. Aipatzen dituzten ondorioen artean, honako hau azpimarratu nahi nuke: “*Euskal unibertsitatea* euskarazko unibertsitate modura definitzen dugu eta euskaraz egiten den unibertsitate -irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa eta egitura- oro hartzen ditu bere baitan. Pentsabide horretatik, Euskal Herrian dauden unibertsitate guztietan egiten den euskarazko jarduera oro ere euskal unibertsitatearen zati da -irakaskuntza, ikerkuntza, kudeaketa, eta egitura kontuan izanik-; halaber, osotara euskaraz den unibertsitatea edo unibertsitate-gunea garatzen denean, hori ere Euskal unibertsitatearen zati izango da. Guztien artean osatzen baitute *Euskal unibertsitatea*”.

Horrekin batera, unibertsitateak Euskal Herrian izan duen historia eta bilakaera ere aztertzen da liburu honetan. Batez ere aipagarria da M. Aizpuruk eta R. Jimeno-k sinatzen duten artikulua: “Euskal Unibertsitatearen historia”. Lan interesgarria

da historian zehar Euskal Herriko unibertsitateek izan dituzten gorabeherak ulertzeko.

2003. urtean, Mikel Aizpuruak *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan. Hasierako urteak (1973-1984)* liburua argitaratu zuen. Idazleak berak liburuaren sarreran dioen bezala, “1973ko udan, Donibane Lohitzunen sortutako erakundea da, hain zuzen, liburu honen arrazoia eta lan-gaia”. Zera gaineratzen du ondoren: “...UEUren historiaren ezaugarria izan da bere izaerari eta helburuei buruzko hausnarketak behin eta berriz egitea. Azken hamarkadan, gainera, eraldaketa ugari bizi izan ditu, eta horrek bere tokia bilatzeko premia areagotu du. Kezka hori izan zen 2002. urtean UEUK egindako II. Kongresuaren bigarren arrazoi nagusia, eta kezka horrek bultzaturik erabaki zuen UEUren Talde Eragileak UEUren Historia idatzi behar zela”.

Ondo egituratutako historia liburua da; gustura irakurtzen dena. Udako Euskal Unibertsitatearekin, eta 70. eta 80. hamarkadako euskalgintzarekin interesatua dagoen edonork irakurri beharrekoa. Izan ere, UEU-ren historia kontatzearekin batera, hogeita hamar urte horietan, euskal gizarteak eta euskalgintzak bizi izan dituzten aldaketen berri ematen digu.

Hirugarren liburua 2003. urtean argitaratu zuten Juan Ignacio Perez-ek eta Pello Salaburu-k. Liburuaren izenburua da *Unibertsitatea eta euskal gizartea, gaur*. Euskal Herriko eta inguruko unibertsitateen egoera ezagutzeko datu pila emateaz gain, salaketa eta eskari ugari ere egiten dituzte. Besteak beste, Pello Salaburu-k eta Jose Ignacio Perez Iglesias-ek behin eta berriz adierazten dute ez dela zilegi gure unibertsitatei munduko unibertsitate onenen maila eskatzea, eta, era berean, Europako finantzazio atzeratuenetakoa izatea.

Hauen ustez, erakundeek albo batera utzi dute unibertsitatea; alegia, Euskal Herriko Unibertsitateei ez zaie behar

bezalako laguntzarik ematen. Beraz, ezinbestekoa ikusten dute Euskal Herriko unibertsitateetan diru gehiago gastatzea. Are gehiago, askotan diote unibertsitateek dituzten erronkei (profesionalen etengabeko formazioa, ikerketa hobeagotzea, euskalduntze plana eta datozen urteetan emango den ikasleen gutxitzeari aurre egitea) arreta berezia jarri behar zaiela, atzeraturik gelditu gura ez badugu. Beraien ustez, unibertsitatea zaintzen ez bada gure bizi kalitatea kaltetua geldituko da.

Erraz irakurtzen den liburua da. Informazio pila ematen duena. Gainera, beste unibertsitate batzuei buruzko datu ugari ematen dituzte, eta horrek erkaketak egiteko aukera paregabea eskaintzen du. Alegia, Europako eta munduko beste unibertsitateekin alderatuz euskal unibertsitate sistema zein egoratan dagoen ezagutzeko balio du.

Hiru liburu hauen ostean, hain zuzen ere 2004. urtean, ANECA-k Los Españoles y la Universidad liburua kaleratu zuen (Agencia Nacional de Evaluación de la Calidad y Acreditación). Liburu hau EHU-ko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko lan talde batek egin zuen. Bertan, Estatu espainiarreko biztanleek unibertsitatearekiko eta unibertsitatearekin loturiko zenbait gaiei buruz duten iritzia aztertzen da.

Besteak beste, Estatu espainiarreko unibertsitateen imajina publikoa, unibertsitateak erabiltzen dituen baliabideei buruzko iritzia, unibertsitatearen lanari buruzko jarrerak eta azken urteotan unibertsitatean egin diren erreformeiei buruzko iritzia aztertzen dira.

Agertzen dituzten emaitza guztietatik, atentzioa deitu didaten bi datu aipatuko ditut bakarrik. Batetik, EAE-ko biztanleriaren %58ak eta Nafarroako biztanleriaren %57,4ak garrantzi handia ematen dio unibertsitateari. Hau da, Hego Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoak garrantzi handia ematen dio unibertsitateari.

1. Taula. Unibertsitatearen garrantzia Estatuko komunitate autonomoetan (%)

	Garrantzi handia	Nahiko garrantzia	Garrantzi apur bat	Garrantzi gutxi	Garrantzirik ez	EE/EE	Guztira
Andaluzia	52,9	37,0	5,7	2,7	1,0	0,7	100,0
Aragoi	57,5	35,3	3,8	1,9	0,6	1,0	100,0
Asturias	55,9	34,7	5,3	2,0	0,8	1,3	100,0
Balearrak	57,7	34,6	4,7	1,0	1,0	0,8	100,0
Kanariar irlak	48,8	39,8	7,3	3,2	0,5	0,5	100,0
Kantabria	54,2	33,1	9,9	2,3	0,0	0,4	100,0
Gaztela eta Leon	49,5	37,9	5,2	4,5	0,6	2,3	100,0
Gaztela-La Mantxa	54,2	34,6	6,3	1,6	1,1	2,2	100,0
Katalunia	60,8	31,3	4,1	2,7	0,7	0,4	100,0
Euskadi	58,7	31,9	6,5	1,4	1,2	0,2	100,0
Extremadura	59,1	34,1	5,7	,4	0,8	0,0	100,0
Galizia	61,8	28,6	5,1	3,2	0,5	0,7	100,0
Madril	56,9	32,2	6,6	2,7	0,9	0,7	100,0
Murtzia	49,2	40,1	7,8	1,4	0,5	0,9	100,0
Nafarroa	57,4	35,9	3,0	1,0	1,3	1,4	100,0
Errioxa	57,9	33,8	4,6	2,1	1,1	0,6	100,0
Balentzia	58,9	33,8	4,9	,9	1,0	0,5	100,0
GUZTIRA	56,4	34,1	5,5	2,4	0,8	0,8	100,0

Iturria: ANECA, 2004, *Los Españoles y la Universidad*.

Horrekin batera, ikerketa honetan zera agertzen da: EAE-ko biztanleriaren %73,9ak unibertsitatearen azken hamar urteetako bilakaerari buruzko jarrera baikorra duela (%12,3ak pentsatzen du azken urteotan unibertsitatea asko hobetu dela eta

%61,6ak hobetu egin dela). Nafarren artean, ehuneko hau %76,5ekoa da (%19,7ak pentsatzen du unibertsitatea asko hobetu dela eta %56,4ak hobetu egin dela). Alegia, Hego Euskal Herriko biztanleek unibertsitatearen azken hamar urteetako bilakaerari buruzko jarrera baikorra dute.

2. Taula.- Unibertsitatearen bilakaera azken 10 urteetan (%)

	Asko hobetu da	Hobetu egin da	Lehen bezala dago	Lehen baino txarragoa da	Lehen baino askoz txarragoa da	ED/EE	Guztira
Andaluzia	20,7	50,6	15,8	3,4	0,4	9,1	100,0
Aragoi	9,0	51,5	19,8	6,3	0,0	13,4	100,0
Asturias	9,1	48,9	23,2	6,1	0,0	12,7	100,0
Balearrak	17,8	54,9	12,0	3,4	0,0	11,9	100,0
Kanariak	19,5	54,4	17,7	2,1	0,2	6,1	100,0
Kantabria	17,2	55,2	15,8	2,0	0,0	9,8	100,0
Gaztela eta León	14,0	55,6	18,2	4,0	0,3	7,8	100,0
Gaztela- La Mantxa	25,6	55,2	7,8	,5	0,3	10,6	100,0
Katalunia	11,7	51,5	20,7	5,3	0,1	10,9	100,0
Euskadi	12,3	61,6	15,6	2,2	0,6	7,7	100,0
Extremadura	25,7	49,7	12,7	2,7	0,0	9,1	100,0
Galizia	17,3	46,5	20,8	4,8	0,6	10,1	100,0
Madril	10,1	44,9	21,4	13,3	0,5	9,8	100,0
Murtzia	19,9	55,3	11,9	3,1	0,0	9,8	100,0
Nafarroa	19,7	56,4	14,8	0,0	0,5	8,5	100,0
Errioxa	18,9	61,0	7,6	1,5	0,5	10,6	100,0
Balentzia	18,2	51,2	16,1	5,6	0,4	8,5	100,0
GUZTIRA	16,0	51,4	17,5	5,2	0,3	9,6	100,0

Iturria: ANECA, 2004, *Los Españoles y la Universidad*.

Unibertsitatearen egoera, erronka eta etorkizunak betidanik izan dira ikergai. Onerako edo txarrerako, unibertsitatea ezta-baidarako gai da beti; bai hemen, bai hemendik kanpo. Dena dela, badirudi XXI. mendearen hasieran unibertsitateari buruzko ikerketa eta gogoetek inoiz baino garrantzi gehiago dutela gure artean.

Horren arrazoietariko bat da, nire ustez, unibertsitateak gizaritean zer paper jokatu behar duenari buruzko kezka izugarria dagoela, baita unibertsitateak dituen erronka berriei eta ahultasunei buruzko ardura itzela ere.

Mendebaldeko unibertsitate sistema asko bezala, gure unibertsitateak ere trantsizio egoeran daude. Izan ere, XIX. eta XX. mendeko unibertsitateetan oinarrizkoak ziren egitura, eredu eta portaerak zalantzan jarri dira, baina oraindik ez ditugu aurkitu etorkizuneko unibertsitateak gidatuko dituzten oinarriak. Beste hitz batzuekin esanda, iraganeko unibertsitate mota hiltzen eta, aldiz, datorkigun unibertsitate mota berria deskubritu eta finkatu barik dagoen une honetan, hartu beharreko erabakiei eta jarraitu beharreko bideei buruzko zalantza izugarriak sortzen zaizkigu; eta horrek kezka edota ardura izugarriak sortzen digu. Baliteke lau lan hauek kezka horiek bultzatutakoak izatea.

Bestalde, aipatzekoa da Bolognako ituna gainean dugula, eta unibertsitatean lan egiten dugunok apur bat urduri gaudela itun honek ekarriko dituen aldaketekin. Izan ere, diotenez, Bolognako itunak ikasgaien eta ikasketen antolaketa berria ekarriko du.

Itun hau bultzatzen ari direnen arabera, Itun honekin estatutako unibertsitate ikasketak arautu gura dira, estatuen artean dauden desberdintasunak murrizteko. Hau da, Europa osorako esparru unibertsitario bateratua eratu nahi da. Horretarako, titulazio guztiak aldatu gura dira (titulazio bakoitzaren iraupena, ikasgaiak, ebaluaketa sistemak...), eta, horrekin, baita kompetentzia profesionalak ere. Alegia, titulazio bakoitzak zer lanbide izateko eskubidea ematen duen ere zehaz-

tuko da. Nazioarteko akordioen arabera, 2010. urterako mar-txan egon behar dute aldaketek.

Unibertsitatearen etorkizunari buruzko ardura agertzeaz gain, lau liburu hauek argi erakusten dute gure unibertsitate-tan aurrera pausoak eman direla, unibertsitatea oso garrantzi-tsua dela, eta biztanleria pozik dagoela azken urteotan uniber-tsitateak egin duen bilakaerarekin.

Hala ere, arazoak ugariak direla ezin da ukatu. Liburuotan argi esaten da ikerketa hobeagotu behar dela, baita irakaskun-tza errealitate berrietara moldatu ere. Gehiago esan daiteke, lau liburu hauetan behin eta berriz esaten da Euskal Herriko unibertsitateek dituzten erronkei (finantziazioa, euskalduntzea, unibertsitarioen kopurua gutxitzea, ikerketa...) arreta berezia eskaini behar zaiela, atzeraturik gelditu gura ez badugu.

Horrekin batera, unibertsitatean gehiago gastatzeko eta uni-bertsitateari arreta gehiago jartzeko ere eskatzen zaie erakunde eta agintariei. Gure etorkizuna bermatzeko, erakundeek balia-bide gehiago inbertitu behar dituzte unibertsitatean. Ezin da ahan-tzi unibertsitateak direla, gaur egun, teknologia eta pro-duk-tibitate modu berrien sortzailcak, baita gizartearen ongizatea-ren bermatzaile garrantzitsuenetarikoak ere.

BIBLIOGRAFIA

- UEU-EIRE (2002): *Euskal Unibertsitatea-2021. Egiten ari garen euskarazko unibertsitatea*. UEU, Bilbo.
- AIZPURUA, M. (2003): *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kultur-gintzan. Hasierako urteak (1973-1984)*, UEU, Bilbo.
- SALABURU, P. eta PEREZ, J.I. (2003): *Unibertsitatea eta euskal gizar-tea, gaur*. Pamiela, Iruñea.
- ANECA (2004): *Los Españoles y la Universidad*. ANECA, Madril.

Patxi Juaristi